Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Ahatsa-Altzieta-Bazkazane

Aurkibidea

Udalerria: Ahatsa-Altzieta-Bazkazane

Sarrera



Nafarroa Behereko udalerria da eta Donibane Garaziko Kantonamenduan dago kokaturik. Ahatsa da udalerriko auzoburua. Iparraldea Duzunaritze-Sarasketa udalerriarekin egiten du muga; ipar-mendebaldean Donazaharrerekin; mendebaldean Aintzilarekin; eta hegoaldean, berriz, Ezterenzubi eta Lekunberri udalerriekin.

- **Biztanleak**: 286
- **Euskaldunak**: %63,33

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **5**
- Zintak: **6**
- Pasarteak: **76**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **67**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Diasporako Ahotsak
- Euskal kultur erakundearen artxiboak

Hizlariak

Guillaume Irigaray (1931)

Guillaume Ahatsa Irioinian sortu zen 1931n, zazpi haurreko familia batean (zazpigarrena hiru urtetan zendu zen). Bere arreba zaharrenak hartu zuen baserriko segida (gaur egun honen semeak egin duen bezala). Guillaumek eta beste bi haurride mutxurdin eta donadoek Irioinian bizitzen segitu dute. Hamalau urte zituenetik (1945), Guillaume familiako artzaina izan da Gasnategin (Iratin).

Pierre Julien Lanathoua (1932)



Ahatsan jaioa, Larraburria etxaldean. Ama bertakoa zen: Marie Duhalde. Pierrek zazpi urte zituenean hil zen, laugarren umea erditzean. Aita bigarrenez ezkondu zen eta beste hiru seme-alaba izan zituzten. Aita 1923tik 1929ra Ameriketan egona zen (1950ean berriro joan zen). Pierre herriko eskolan ibili zen eta baserrian laguntzen zuen. 17 urterekin Mindenera joan zen (Nevada) osabarengana. Artzain egon zen Dangberg Land and Livestock ardi-konpainian. 1951n Kaliforniara joan zen artzain, Kern Countyra, Saldubehere ardi-jabearendako. 1957an esnetegi batean hasi zen lanean, Wittierren. 1962an arrantxo batera joan zen belar-lanetara. La Puente herrian bizi izan zen hainbat urtean: Basque Centren eta Silver Dollar jatetxean aritu zen kantinero. 1966an Judy amerikarrarekin ezkondu zen. 1978an Silver Dollar jatetxea erosi eta izena aldatu zioten: Basque Cottage. 1984an hura saldu eta Bakersfieldera joan ziren (emaztearen jaioterrira). Han Wool Growers euskal jatetxean egin zuen lana 35 urtean, kantinero.

Manex Lanatua (1948)



Ahatsan sortua. Aita Ezterenzubikoa zuen eta ama, berriz, Eiheralarrekoa. 19 urterekin Ameriketara joan zen bost urte han igarotzeko asmoz, baina bi urteren buruan aspertu eta itzuli egin zen. Baratzean lan egitea gustuko izan du eta eztigilea ere bada. Euskaltzalea eta idazlea.

Janine Etiennette Maitia (1945)



Ezkonduz geroztik, lehenengo Auron eta gero Araneta. Ahatsan (NB) sortua, Tamundeya baserrian; ama bertakoa zuen eta aita Donazaharrekoa. Bi ahizpatan zaharrena. Haurrak zirelarik, aita Ameriketara joan zen artzain eta beraiek Baionara joan ziren bizitzera, amarekin; Baiona Ttipian joan ziren eskolara. Janinek 11 urte zituenean, aitarengana joan ziren, Bakersfieldera (Kalifornia). Aita Basque Cafe jatetxean zebilen lanean, kantinan, eta ama ere hantxe hasi zen gero, zerbitzari. Gurasoek Ameztoy jatetxea erosi zuten gero. Banku batean ibili zen lanean, lehenengo Bakersfielden, gero Chino eta gero berriro Bakersfielden. Robert Auron amerikarrarekin ezkondu zen eta hiru seme izan zituzten. Banandu zirelarik, Jose Aranetarekin ezkondu zen (Iruritakoa zen eta bi seme zituen). Bakersfieldeko euskal klubeko kide ziren. Arrantza eta ehiza maite zuten. Maddy ahizparekin batera elkarrizketatu genuen.

Maddy Baptiste Maitia (1946)



Ezkonduz geroztik, Arrayet. Ahatsan (NB) sortua, Tamundeya baserrian; ama bertakoa zuen eta aita Donazaharrekoa. Bi ahizpatan gazteena. Haurrak zirelarik, aita Ameriketara joan zen artzain eta beraiek Baionara joan ziren bizitzera amarekin; Baiona Ttipian joan ziren eskolara. Maddyk 10 urte zituenean, aitarengana joan ziren, Bakersfieldera (Kalifornia). Aita Basque Cafe jatetxean zebilen lanean, kantinan, eta ama ere hantxe hasi zen gero, zerbitzari. Gurasoek Ameztoy jatetxea erosi zuten gero eta Maddy han ere egon zen lanean. Arnaud Arrayet ezagutu zuen han (Irulegin sortua eta Zaron hazia); ezkondu eta semea eta alaba izan zituzten (alaba Euskal Herrian bizi da). Senarra baratzeetan aritzen zen lanean; Maddyk idazkaritza ikasketak zituen eta bulego batean egiten zuen lana. Urte batzuetan senar-emazteak elkarrekin aritu ziren baratzeen negozioan. Bakersfieldeko euskal klubeko kide ziren. Arrantza eta ehiza ere maite zituzten. Janine ahizparekin batera elkarrizketatu genuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Eskolaren eragina adinekoenengan

- **Hizlaria(k)**: Lanatua, Manex
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: AHA-001/017
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 00:38:37. **Bukatu**: 00:40:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Lehengoak gutxi ibltzen ziren eskolan, bi urte baino ez, eta beraz ez ziren hainbeste frantsestu. Morroi joaten ziren 12 urtetarako. bere aitak armadara joan zelarik ez zekien frantses mikorik.

Transkripzioa
- Biziki sufritu dut e, biziki sufritu dut.
- Gero, bon, ene irudipen bat da azken batean ez? Eskola betidanik izan da eta zien aintzinekoek ere eskola hori pairatu dute, eskola horren ba irakaspen frantses hori, ez?
- Ba bena gutiago, iruditzen zat ba ba ba, aita ibilia zen... aita ibilia zen bi urte bakarrik, ibili zan bi urtez eskolan. Bi urtez, ezen lana bazen, familiak haundiak eta lanak baziren. Ta behar zen lehenik... lehengo etxeko lanetaz eta arduratu. Ta hamabi urtetan jada mutil zen aita. Itzain eta sartzen tuzten eta itzaina zen bideak eta gidatzen zituen norbait eta. Eta edo, zerrizain edo ardizain edo... hor juaiten ziren ezen familia handiak baitziren. Eta sartzen zituzten auzo-etxetan, jatekorik eta ez baitzen aski. Zonbait aldiz bazien hamabi hamahiru ha, zonbait aldiz, hala, normalki familiak sei-zazpi haur beren baziren gutienez. Ta ordian jateko puxka batean truk hori ta haurrak sartzen zituzten auzo-etxetan. Eta orduan eskolan guti ibiliak zien ba aita ta ba ama. Ta ez zuten eskuara... ez zuten frantsesa armadara joan zelarik aitak konatzen zuen, ez zuen deus ulertzen e!

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Ameriketara lanera (AHA-001/002)

19 urtetan Ameriketara joan zen sos puxka bat egin asmoz, baina bi urte eta erdi igarota aspertu eta itzuli zen. Familiako asko joan ziren hara.

2. Deituraren jatorria (AHA-001/003)

"Granade" zuten deitura Ameriketan ehortzi zituzten bere senide batzuek. Bere ustez, abizen hori Espainiatik ihesi etorri ziren musulmandarrengandik dator, haien sorlekuaren oroimenez.

3. Ameriketako bizia I (AHA-001/004)

Oso interesgarria zela iruditzen zaio. 1966an Luther king hil zuten eta ondoren Kennedy. Hippie mugimendua ere orduan gertatu zen, eta baita Vietnam-eko gerla ere. Mugimendu kultural handia gertatu zen. Euskaldunak ez ziren batere interesatzen baina bera eta beste batzuk ordea, bai.

4. Ameriketako bizia II (AHA-001/005)

Partitzeko bezperetan iratze epaiten ari zen eta bi egunen buruan Los Angelesen zen. Izugarrizko jauzia izan zen. Okindegi batean hasi zen lanean bertan 8 orduz, eta oso arrotza zen hori beretzat. Ez zitzaion hango hipokresia gustatu, eta pentsaketak egiteko apaiz-etxe batean sartu nahi zuen. Horretarako Euskal Herrira itzuli zen.

5. Apaiz ikasketak Bordelen (AHA-001/006)

Bordeleko jende helduentzako apaiztegi batean sartu zen. Filosofia, Soziologia eta biblia ikasi zituen, besteak beste. Apaiz ikasketen bitartez, unibertsitate batean ikas zitekeen jakintza erdiesteko posibilitatea zegoen. Pedagogia handia zuten apaizek.

6. Euskal Herriko arazoen irtenbidearen alde borrokan (AHA-001/007)

1974ean apaiztegitik atera zen. Orduan Euskal Herriko egoeraz konprometitu zen. Baionako eliz nagusian baziren gose greba egiten ari zirenak. Euskal Herriko eskubideen alde elizak ezer ere egiten ez zuela eta, eskutitz bat idatzi zien Baionako apzpikuari, Donostiakoari, Etxegarai ezpeletarrari, eta Hego Ameriketan ari zen Don Hélder Cámara-ri. Frantzian langile borrokan ari zen apaiz batek baino ez zion erantzun

7. Ospitalean langile-gizarteaz pentsaketan (AHA-001/008)

Artzain sartu zen, baina istripu bat izan eta Ospitalez ospitale ibili zen. Han Ivan Illich filosofoaren lanak irakurri zituen. Hark ospitalearen lana, produktibatateak Aurrera jarraitzeko tresna moduan ikusten zuen.

8. Garazi eskualdearen aldaketa laborantxan (AHA-001/009)

Laborantxa egiteko manera aldatu egin da. Lehen naturaren errespetua zen, eta gerlatik landa Plan Marshall-aren eraginez, Ameriketako lanerako moldea etorri zen, laborantxa industriala. Horrek ere baditu alde txarrak, dena pozoindu baita. Bada orain laborantxa biologikoaz interesatua denik.

9. Laborantxak hartu behar lukeen bidea etorkizunean (AHA-001/010)

Laborantxa ekologikoa indarra hartzen ari da, baina hori molde zaharreko laborantxa baino ez da. Ez da gibelera egitea, hartua dugun jakintza eta ikasketen bitartez, egoeraz ohartu eta modu jasangarrian Aurrera egitea baizik.

10. Ligatzeko guneak Donibane Garazin (AHA-001/011)

Donibane Garazin neskak mutilen beha jartzen ziren zubian. Bazen bizia herrian.

11. Orbaitzetako gizonaren istorioa (AHA-001/012)

Gazte zelarik Orbaitzetako gizon bat ezagutu zuen. Oso euskara ederra zuela oroitzen da. Gaur egun, inork ez du euskara mintzatzen han.

12. Haur denboran gutxirekin pozik (AHA-001/013)

Oso gutxirekin konformatzen ziren bere haur denboran. Panpinak arreba zaharrenarengandik gazteenarengana pasatzen ziren. Eguberritan ere laranja bat oparitzat izatea animalekoa zen beraientzat.

13. Garazi eskualdearen aldaketa euskarari dagokionez (AHA-001/014)

Jende guzti-guztiak mintzo ziren euskaraz. Bakar batzuk baziren kanpotik etorriak ez zekitenak, baina oso gutxi ziren eta ez zuten harremanik eurekin. Gaur egunean, euskaldunak gutxiengoa dira.

14. Euskara galtzearen arrazoiak (AHA-001/015)

Kolonialismoa da euskara desagertarazi duena. Bera ere oroitzen da "Euskalduna naiz, zozoa naiz" idatziaz arbelean. Arbel hori bizkarrean hartu eta inguruan zebiltzen langile euskaldun batzuen aurretik pasatzera bortxatua izan zen. Alta, irakaslea euskalduna zen. Lotsa sortarazi dute euskaldun izateagatik. Badira oraindik frantsesa euskaran oinarrituta mintzatzen duten jendeak.

15. Elizaren jarrera euskararekiko (AHA-001/016)

Apaizek gehiago egin zuten euskararen alde. Berak euskara idatzita ikusi zuen lehenbiziko aldia katiximan izan zen. Elizaren eta errepublikaren artean gatazka zen eta beraz eskolaren eta elizaren jarrera oso desberdina zen euskararekiko.

16. Semeak amari galdetua (AHA-001/018)

Bere amak ez zuen nazional agiririk lehen. Hori jakinik berak galdetu zion ia zer zen, frantsesa ala euskalduna, eta amak ez zekiela erantzun zion. Lehengoek ez zuten nortasunaren kontzientziarik. Egoera hortaz baliatu ziren frantsesak euren identitatea inposatzeko.

17. Kolonialismoa Frantzian eta Espainian (AHA-001/019)

Espainiolak ere kolonialistak izan dira, eta bortitzagoak. Frantsesek psikologia eta goxotasun gehiago erabili dute euren zereginerako. Alta, zenbait lekutan ere bortitza izan da, esaterako Afrikan

18. Arabiar munduari interesatua I (AHA-002/001)

Orain frantsesez idazten ari da frantses giroko jendea hunkitzeko eta arabiar munduari lotzeko. Euskaldunek arabiarrenganako hurbiltasuna nola bizi izan duten jakin nahi du.

19. Arabiar munduari interesatua II (AHA-002/003)

Ez da arabiarren eta euskaldunen arteko harremanari buruz ez da ezer ere idatzi. Hori ikertzeko arabiarrez jakitea beharrezkoa dela ikusirik, ikasteari ekin dio. Olerkia ere zibilizazio horri oso lotuta dago, eta horrek ere interesa pizten dio. Lehen medikuak arabiarrak ziren, baina beste diziplina ugaritan ere

jakitunak ziren. Jakintza orokorra oso garrantzitsua dela uste du. Afrika iparraldekoak sasoi batean bereberrak ziren. Yemendarrak dira lehen arabiarrak. K.a. 10000 urtekoak dira aztarnarik zaharrenak eta espainia hegoaldean ere aurkitu izan dira.

20. Olerkia eta arabiar zibilizazioa (AHA-002/004)

Olerkiari dagokionez, berdintasun handiak daude kultura semitikoaren eta euskaldunen artean. Ber elementuei buruz hitz egiten da, bietan baita artzaintza oinarri. Islamismoa sartu aitzin ilargiak edota izarrek berebiziko indarra zuten haien kulturan. Hizkuntza zen haien aberastasun bakarra eta berebiziko garrantzia ematen diote.

21. Tirabirak bai arabiarren eta bai euskaldunean artean ere (AHA-002/005)

Familia leinuak haientzat enbor beretik zetozen. Zenbat eta enborretik hurbilago egon, leinuek garrantzi gehiago zuten, eta eztabaidak izaten zituzten. Euskaldunen artean ere baziren aharrak, esaterako Donazaharreko mizpira feria pasatu eta gizon batek galdegin zion beste bati ia jende hiltzerik izan zen. Ezezkoa entzunda galdera egin zuenak feria txarra izan zela iritzi zion.

22. Hitzaren garrantzia arabiarrengan (AHA-002/006)

Heriotzek sortzen zituzten gatazkak ekiditeko bertso lehiaketak egiten zituzten. Bertsorik ederrena egiten zuena ateratzen zen irabazle. Hitzak beraz, izugarrizko garrantzia zuen arabiarrentzat, baina baita euskaldunentzat ere.

23. Zurgintza (AHA-002/007)

Altzarigintzan aritu izan da. Zura olerkia bezala da beretzat, izan ere marrazkiak irakur lekizkioke.

24. Jabetzaren garrantzia euskaldunengan (AHA-002/008)

Garrantzi gehieneko jendeak jabe handiak ziren, eta horiek ziren gorteetan bozkatzeko aukera zutenak. Apaizek sartu zituzten ideia horiek. Lehenago herri-lurrak zirenak hala pribatu bilakatu ziren

25. Eztigintza (AHA-002/009)

Eurek ez zuten eremu handirik, eta beraz, erleekin lanean hasi zen ezkondu eta. Ingurumenaren eta denboraren beharraren kontzientzia hartu du hala. Beste denbora batean bizitzen ikasi du, sosaren egiteko denboratik kanpo.

26. Denboraren kontzeptua (AHA-002/010)

Gaur egun jendea sosaren egiteko denboraren barruan bizi da. Berak denboraren beste kontzepzio bat du, anakronikoa da, eta bizitzeko, lanerako eta maitatzeko hartzen du denbora. Leku pobreetako zibilizazioek duten denboraren ikuspegiarekin identifikatzen da, naturak agintzen diguna. Gaur egun hortik urruntzen ari gara. Denbora mota horretan kokatzen du olerkia eta eztigintza

27. Ahatsako herria 1940. hamarkadan (AHA-003/001)

Guillaume Irigaray, Ahatsa Irioinian sorturik 1931an, herriko eskolan ibilia da. Laurogoi haur ziren garai hartan, mutiko-neskak nahasirik 2 eskoletan

(handiena eta ttipiena). Herrian baziren ere besteak beste ahotza, bi mahasturu, dendaria, eiherazaina, serora, bi ostatu.

28. Iratiko bazkak 1940-1950. hamarkadetan (AHA-003/002)

Ahatsako laborari etxe guziek ardiak bazketara igortzen zuzten. Artzaina izan ziteken etxeko semea edo mutila, edo batzuetan ere beste etxola bateko artzaina.Ardiak maiatzaren lehenean igaiten ziren eta neguan jeusten. Irioineko Bordan, Gasnategin, ardietaz aparte baziren ere behiak, ahuntzak, xerriak eta astoa. Hauek urte guzian gainean egoiten ziren.

29. Artzainaren eguneroko bizia bortuan (AHA-003/003)

Urte guzian mendian egoten bazen (Guillaume Irigaray bezala), lan ezberdina zuen artzainak primadera-udan (ardi deizte, gasna egite) eta neguan (kabalen bazkatze, pentze zerratze). 1950tik hona, azkarki aldatu da artzainaren bizia eta lanmoldea.

30. Gasnaren egitea (AHA-003/004)

Guillaume Irigaray artzainak gasna egitearen urrats desberdinak deskribitzen dizkigu. Berantago, gasna egiteko molde berri bat sartu zen, Xiberoko moldea deitua.

31. Artilea (AHA-003/005)

Esneaz aparte, artileak ere bazuen bere balioa : saldua zen edo galtxa motxen egiteko erabilia.

32. Artzaina eta ardiaren arteko harremana (AHA-003/006)

Artzainak ardien deitzeko molde berezi bat ukan zezaken, itxuraren, jitearen, esnea emateko gaitasunaren arabera.Ardiaren eritasunak ere hurbiletik segitzen zituen.

33. Joareak (AHA-003/007)

Baziren bideko eta mendiko joareak : klaxkak (laukiak zirenak), kuxkulak edo ttunpak (errondak), joare luzeak. Joare egile bat bazen Donazaharren.

34. Gasnategi deitu tokiaren berezitasuna (Irati) (AHA-003/008)

1950. hamarkadan, 9 etxola baziren Gasnategin : artzainak hor bizi ziren urte guzian. Etxola horietarik 7 gelditzen dira gaurregun. Guillaume Irigaray-ek Gasnategi inguruko mendi mazelen izenak ematen dizkigu.

35. Gasnategitik hurbil, Iratin (AHA-003/009)

Salbatore kaperan urtero egiten da beila (besta berri aintzineko ostegunean) eta prozesionea (hamabost egun lehenago). Iratiko oihanak ere badu bere fama, besteak beste hortik tiratzen zen zurarentzat.

36. Aita Ameriketan lanean egona bi aldiz (AHA-006/004)

Aita Ameriketara bi aldiz joan zen lanera. Lehena, 1923tik 1929ra: hasiera batean Kalifonian ibili zen artzain, egoera eskasean. Lurrean lo egin zuen askotan. Euskal Herrira itzuli zen baina 1950ean berriz bueltatu zen Ameriketara.

37. Bost urterekin baserriko lanetan lanean (AHA-006/006)

Gurasoak errota batean ezagutu ziren. Ezkondu eta laugarren semea erditzerakoan ama hil zen. Aita berriz ezkondu zen eta beste hiru seme-alaba izan zituen. Baserrian animalian zituzten eta bost urterekin hasi zen aitari baserrian laguntzen, eskolatik bueltan.

38. Bizimodua euskaraz egiten zen (AHA-006/007)

Herriko eskolara joan zen. Frantsesez ikasten zuten, baina euskaraz aritzen ziren askotan. Elizan katixima, mezak eta kantak euskaraz ziren.

39. Ahateak gizentzen zituzten gibela saltzeko (AHA-006/008)

Bildotsak eta ahateak saltzen zituzten eta hortik lortzen zuten etxerako dirua. Ahatearen gibela saltzen zuten eta horretarako animalia gizentzen zuten.

40. Arrautzak kontrabandoz atorraren barruan pasatzen (AHA-006/009)

Arrautzak Luzaidera kontrabandoz pasatzen zituen. Bizikletan joaten zen Ahatsetik eta atorraren azpian ezkutatutzen zituen arrautzak.

41. Luzaidera kontrabandoa egitera 12 urterekin (AHA-006/011)

Pekotzetara (Luzaide) kontrabandoz arrautzak eramaten zituen bizikletaz. Karabineroak mugan egoten ziren eta kontuz ibili behar izaten zuen. Arrautzak eramaten zituen Hegoaldera eta bueltan bananak eta laranjak eramaten zituen. 12-13 urterekin ibiltzen zen kontrabandoan.

42. Hamazazpi urterekin Ameriketara lanera (AHA-006/012)

17 urterekin joan zen Ameriketara lanera. Hegazkinez joan zen New Yorkera eta handik Salt Lake Cityra. Handik, trenean Garnervillera. Aitaren osaba batek lan egiten zuen arrantxora joan zen lanera eta laborantzan hasi zen.

43. Hilabete oso batez arrautzak bakarrik jaten (AHA-006/013)

Arrantxoan zegoela, artzain zahar baten lana eman zioten eta kozinatzen ez zekienez, mendian hilabete batez arrautzak jan zituen bakarrik. Felipe Errea izeneko Mezkiritzeko artzaia nahiko gertu zegoen eta egunero arrautzak jaten zituela jakin zuenean, egunero elkarrekin afaltzen hasi ziren. Berarekin ikasi zuen janaria prestatzen. Nevadan artzainak bakarrik egoten ziren txakurrarekin.

44. Artzain batzuk burua galtzen zuten (AHA-006/014)

Artzain batzuentzat bakardadea oso gogorra da. Batzuk bere buruaz beste egin zuten eta beste batzuei burua nahasi zitzaien. Pierre gustora ibili zen, bai mendian baina arrantxoan ere.

45. Kalifonian artzain lana askoz hobeagoa zen (AHA-006/015)

Nevadako arrantxoko jabearekin nazkatuta, Kaliforniara lanera joateko aukera izan zuen. Kaliforniako arrantxoko jabea Aldudekoa zen eta berarentzat zazpi urtez egon zen lanean "erregeak bezala". Kalifornian klima hobeagoa zen.

46. Bere memoriak idatziak ditu euskaraz eta ingelesez (AHA-006/017)

Bere memoriak idatziak ditu euskaraz eta ingelesez. Artzain zegoela eskutitzak idazten zituen etxera, euskaraz.

47. Ez zitzaion kostatu 17 urterekin Ameriketara joatea (AHA-006/020)

Ameriketara 17 urterekin pozik joan zen. Ez zuen herrimin handirik izan, lan ona zuen... Herrian, aberatsagoak ziren auzokoekin pikeak zituela kontatzen du.

48. Gardnervillen bi urtez artzain (AHA-006/021)

Gardnervillen alemaniar batzuen arrantxoan lanean aritu zen. Nagusi onak ziren. Euskaldunen arrantxo batzuetan ez zuten janari asko ematen. 1949tik 1951ra egon zen bertan. Ez zuen inoiz basapiztiekin arazorik izan, tranperoak ibiltzen zirelako koioteak usatzen eta hiltzen.

49. Dominique eta Robert Laxalt (AHA-006/023)

Robert Laxalten aita oso laguna izan zuen. Gardnervillen ezagutu zuen artzain zebilela. Haien istorioa kontatzen du.

50. Gisatuaren errezeta maite zuen (AHA-006/025)

Kaliforniara lanera joan zen Nevadatik. Arrantxoko nagusiak Aldudekoak ziren eta nagusia Jean Baptiste Etchemendia deitzen zen. Karpan lo egiten zuten 3-4 langilek. Gisatua nola prestatzen zuten kontatzen du.

51. Ameriketako artzainen anekdotak (AHA-006/026)

Elyn (Nevadan) ibilitako bi artzain nafarren anekdota at kontatzen du.

52. Kaliforniara artzain lanetan (AHA-006/028)

Kalifonian lan egin zuen lehenengo arrantxoa Porterville herrian zegoen. Hasieran nekazari lanetan aritu zen eta gero mendira joaten zen. Karpa txiki batean lo egiten zuten mendian. Ardi beltzak kontatzen zituzten artalde guztia osorik zegoen jakiteko. Tranperoak, koioeteak kontrolpean izaten zituen.

53. Artzain izatetik esnetegian lan egitera (AHA-006/030)

Kalifornian artzain bezala lan egin zuen 1951tik 1957ra. Ondoren esnetegian lan egin zuen, La Puente izeneko hirian (Chinotik gertu). Euskaldun asko zeuden bertan.

54. Lertxun-marrekin osatutako liburua (AHA-006/032)

Lertxunetan marrazkiak jasotzen dituen liburu polit bat dagoela kontatzen du. Aurretik, egokiak ez ziren argazkiak zeudela dio baina egileari esan omen zion haiek kentzeko.

55. Lertxunetan marrazkiak egiten (AHA-006/034)

Lertxunetan marrazkiak egindakoa da Pierre.

56. Bi euskaldun ingelesez eztabaidan (AHA-006/035)

Artzain bezala lanean ibili zenean, emakume batekin izandako liskarra kontatzen du. Ingelesez aritu ziren eztabaidan eta gero jakin zuen hura ere euskalduna zela. Arrantxo hartan ikasi zuen ingelesez eta gaztelaniaz hitz egiten.

57. Kaliforniako esnetegiak euskaldun langilez beteta (AHA-006/037)

Esnetegietan euskaldun askok egiten zuten lan.

58. Ameriketako artzainaren soldata (AHA-006/038)

Nevadako eta Kaliforniako artzainaren soldatak oso ezberdinak ziren. Kalifornian askoz gehiago irabazten zen.

59. Soldata guztia kasinoan gastatzen zituztenak (AHA-006/040)

Nevadan zegoelarik ez zen inoiz kasinoetara joan. Bazeuden diru guztia gastatzen zuten artzainak eta inoiz Euskal Herrira bueltatu ez zirenak. Gardnervillen lanean ibili zenean, nagusiak urtean behin afaltzera gonbidatzen zituen jatetxean.

60. Igandero pilotan aritzen zen Ameriketan (AHA-006/042)

Esnetegian lanean ibili zenean bakoitzak bere logela zeukan. Jai egunetan frontoira joaten zen.

61. Kantinero hogeitabi urtez (AHA-006/044)

Esnetegia saldu zenean, beste arrantxo batean lanean hasi zen belarra mozten. Chinoko euskal zentroko tabernan lan egiteko eskaintza egin zioten eta bertan aritu zen lanean 1962tik 1984ra arte. La Puenteko "Silver Dollar" tabernan ere aritzen zen lanean eta azkenean erosi egin zuen.

62. Arbaso italiardun emaztea (AHA-006/045)

Arbaso italiarrak zituen Bakersfieldeko emakume batekin ezkondu zen 1966an.

63. Euskal tabernetako kantinero Ameriketan (AHA-006/047)

La Puenteko "Silver Dollar" euskal jatetxean 6-7 urtez lanean ibili zen eta gero erosi egin zuten. Asteburuetan Chinoko euskal zentroko kantinan lan egiten zuen. Urte batzietara Silver Dollar erosi zuen.

64. Euskal kantinetan edaten ziren trago ezberdinak (AHA-006/049)

Kantinan denetarik edaten zen: whiskey, vodka, pikona... Euskaldunek gehien edaten zutena "hight ball"-a zen, whiskeya ura edo limoiarekin.

65. Basque Cottage jatetxea (AHA-006/050)

1978an Silver Dollar jatetxea erosi zutenean, Basque Cottage izene jarri zioten eta euskal menua zerbitzatzen zuten. Artistaren bat ere joana zen jatetxera.

66. Wool Growerseko kantinan 35 urtez lanean (AHA-006/053)

Bakersfieldera bizitzera joan zirenean emaztea eta bera, Wool Growers jatetxeko kantinan lanean hasi zen eta bertan 35 urtez ibili da. Emazteak ere bertan lan egin zuen. Maitiatarren jatetxea zen.

67. Euskal jatetxeak Bakersfielden (AHA-006/058)

Noriega jatetxean euskaldun pilo bat biltzen ziren. Wool Growersen amerikanoak era sarri ibiltzen dira. Pierrek 90. urtebetetzea bertan ospatu zuen.

68. Euskal Herrira bisitak (AHA-006/059)

1966an joan zen lehenengo aldiz bisitan Euskal Herrira. Ez zuen aldaketarik nabaritu, bere herria oso txikia zelako. Ameriketara ez ziren Gipuzkoatik eta Lapurditik joaten.

69. Amerikar hiritartasuna (AHA-006/060)

Ameriketara joan zen Frantzian soldaduska ez egiteko. Amerikar hiritartasuna nola lortu zuen kontatzen du. Amerikar euskalduna sentitzen da.

70. Alemanen lagun izateagatik herritik kanporatuak (AHA-006/063)

Etxetik bi kilometrara alemaniar soldaduak zeuden eta haiekin harremanak zituzten neskei, herrikoek ilea moztu zieten eta herritik bota zituzten. Ez zituzten alemanak nahi.

71. Juduei muga pasatzen laguntzen II. Mundu Gerran (AHA-006/065)

II. Mundu Gerran Ipar Euskal Herritik Hegoaldera juduak nola pasatzen ziren kontatzen du.

72. Aita ere artzain ibilia Ameriketan (AHA-006/067)

Pierre Ameriketara joan eta urtebetera aita Renora joan zen lanera. Aitaren artzain garaiko anekdotak kontatzen ditu.

73. Aitaren itzulera Ameriketatik (AHA-006/069)

Aita Ameriketatik Euskal Herrira bueltatu zenean, hango nagusiak afari bat antolatu zion eta inoiz izan zuen artzainik finena izan zela esan zion. Bizi izan zen bitartean, nagusi horrek urtero hogei dolar bidaltzen zizkion Euskal Herrira. Aita diru nahikorekin bueltatu zen herrira eta onddoak biltzera joaten zen.

74. Aita ere artzain ibilia Ameriketan (AHA-006/072)

Pierre Ameriketara joan eta urtebetera aita Renora joan zen lanera. Aitaren artzain garaiko anekdotak kontatzen ditu.

75. Aitaren itzulera Ameriketatik (AHA-006/074)

Aita Ameriketatik Euskal Herrira bueltatu zenean, hango nagusiak afari bat antolatu zion eta inoiz izan zuen artzainik finena izan zela esan zion. Bizi izan zen bitartean, nagusi horrek urtero hogei dolar bidaltzen zizkion Euskal Herrira. Aita diru nahikorekin bueltatu zen herrira eta onddoak biltzera joaten zen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-15

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com